

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4585

AGINDUA, 2023ko irailaren 29koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita Euskarianako datu-bazkideen metadatu eta miniaturak Europeanari emateko prozesua.

Agindu honen lege-oinarri dira Euskal Herrirako Autonomia Estatutuak 10. artikuluan –17., 19. eta 20. apartatuetan– Euskal Autonomia Erkidegoari (EAE) emandako kultura-arloko eskumenak.

Beraz, Autonomia Estatutuaren 17. apartatuan xedatutakoarekin bat, EAEk eskumen esklusiboa du kultura-arloan. Bestalde, 19. zenbakiak Autonomia Erkidegoari ematen dio ondare historiko, artistiko, monumental, arkeologiko eta zientifikoaren gaineko eskumen esklusiboa, eta EAEk bere gain hartzen du Estatuak ezartzen dituen arau eta betebeharren betetzea, ondare hori esportazioaren eta espolioazioaren aurrean babesteko. Horrez gain, 20. apartatuak Estatuaren titulartasunekoak ez diren artxibo, liburutegi eta museoen eskumen esklusiboa aitortzen dio autonomia-erkidegoari.

Bestalde, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Lege berriak euskal kultura-ondarearen definizio irekia ematen du zioen azalpenean, eta bertan sartzen dira gure erkidegoaren kultura-jaraunspena osatzen duten adierazpen esanguratsu guztiak, errealitate material higiezin edo higigarrien eta errealitate immaterialen bidez adierazten direnak. Horrez gain, legeak ondare digitalaren garrantzia aitortzen du, objektu analogiko batetik abiatuta birtualizatua edo objektu digital gisa jaioa, eta azpimarratzen du interkonektatutako kultura-espazio digital berri bat agertu dela, non fitxategiak gordetzeko, datuak tratatzeko eta hedatzeko tresnak partekatzen diren, eta horrek eduki kulturala eskuragarriago egiteko eta berrerrabiltzeko aukera eman duela, betiere jabetza intelektualeko eskubideekin eta datu pertsonalen babesarekin uztargarria bada.

Aurrekoarekin bat, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak 1. artikuluan ezartzen duenez, legearen xedea da EAEko euskal kultura-ondarearen araubide juridikoa ezartzea, beraren babesa, kontserbazioa eta balio-nabarmentzea bermatzeko, bai eta pertsona guztiek, oraingo eta etorkizuneko belaunaldiek, irisgarritasun unibertsaleko baldintzetan, posible denean, ondare hori ezagutu, ikertu, hedatu eta goza dezaten ahalbidetzea ere.

Horren harira, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren funtsezko helburuetako bi dira euskal kultura-ondarea kontserbatu eta hedatzea. Zehazki, Sailak, Liburutegi Digitalaren zerbitzuaren bitartez, zenbait egiteko ditu, besteak beste euskal ondare digitala sortu, babestu eta hedatzeko mekanismo egokiak ezartzea, sarbidea bermatzea eta ondare digitalaren arloan lankidetzaprogramak sustatzea.

Helburu horiek artxiboetarako, liburutegietarako eta museoetarako erabili izan dira normalean. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT) pixkanaka sartu izanak funtsezko aldaketa ekarri du ikuspegi horretan. Nahiz eta gaur egun erakunde horiek funtsezko zeregina izaten jarraitzen duten kontserbazioan, mundu digitalak erabateko eraldaketa ekarri du hedapenaren eremuan, eta, txikiagoa bada ere, kontserbazioaren eremuan ere bai.

Euskadiko artxibo, liburutegi eta museoek sartu-irten nabarmenak egin dituzte mundu digitalean, baita aitzindari gisa ere gure ingurune hurbilenean. Modu horretan, euskal kultura-ondarea gero eta eskuragarriagoa da edonorentzat, baldin eta ordenagailua, sarerako konexioa eta euskal

espazioarekin eta kulturarekin lotutako gaien inguruko ezagutza edo interesa badu. Baina gero eta interkonektatuago dagoen eta gero eta datu gehiago sortzen dituen mundu honetan, ez da nahikoa informazioa digitalizatzea: eskuragarri jarri behar da eta ikusgai egin behar da. Horregatik, euskal kultura-ondarearen ezagutza unibertsalizatu nahi badugu, hainbat eremutan egin behar ditugu ekintzak.

Behar horri erantzuteko, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Euskadiko Liburutegi Digitalaren zerbitzuaren bitartez, abian jarri du Euskariana Euskal Kulturaren Atari Digitala. Liburutegi digital nazional baten eredu berritzailea eta euskal kulturarekin lotutako alderdi guztietara sartzeko plataforma bateratua da, jatorrizko euskarria edozein izanda ere: liburuak, aldizkariak, kartelak, argazkiak, diskoak edo beste material mota batzuk. Euskadiko erakunde, kultura-ekipamendu eta sormen-eragile guztiek partekatzen dute proiektua.

Beraz, Euskarianak aukera ematen du euskal kultura-ondarearen ezagutza unibertsalizatzeko: proiektu kolektibo integrala izan behar du, eta bertan euskal kulturaren eremuan inplikaturik dauden erakunde publiko eta pribatu gehienek hartu behar dute parte, elkarrekikotasunaren eta eragile bakoitzaren idiosinkrasiarekiko eta erantzukizunetikiko errespetuaren ikuspegitik.

Halaber, Euskarianaren proiektua zenbait erakunderen arteko lankidetzaren bidez ari dira eraikitzen: Eusko Jaurlaritza, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, EAEko udalak, unibertsitateak, kultura-erakundeak eta euskal kultura-ondarearen baliabide digitalizatuak kudeatzen dituzten eragile guztiak. Horri esker, estrategia komun bat ezarriko dute administrazioen, erakunde pribatuen eta kultura-arloko eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzaren sailaren artean.

Aurrekoaz gain, Euskarianak herritarren inplikazio handiagoa eta euskal kulturaren dinamizazioa ahalbidetzen ditu, IKTen potentzialtasuna eta gizarte digital baten usadioak eta ohiturak aprobetxatuz.

Interes-arloaren oinarri dira euskal egileek sortutako, Euskadin argitaratutako eta euskal gaiei buruz munduko edozein tokitan ekoizitako baliabideak. Halaber, arreta berezia jartzen du euskaraz sortutako edo euskarara itzultitako edukietan.

Horrela, Euskarianak mesede egin nahi die bai objektu digital horien titularrei eta bai publiko orokorrari, Interneten euskal kultura-ondarearekin lotutako eduki oro bilatu ahal izateko atari digital gisa. Horrez gain, euskal kulturarekin lotuta ahalik eta baliabide digital gehienak bildu nahi ditu, baita erregistroak sistematizatu eta homogeneizatu ere, materialen jatorria identifikatuz eta sor-tzaileen eskubideak errespetatuz.

Gainera, Euskarianak kalitatezko zerbitzu publiko bat eman nahi du, informazioa bilatzen ari diren erabiltzaile orokorren eta ezagutza berriak sortu nahi dituen ikertzaile espezialisten beharrak asetzeko.

Gaur egun, Euskarianak euskal artxibo, liburutegi eta museo biltzaile digitalak biltzen ditu, eta euskal kultura-ondarea osatzen duten askotariko materialetarako (eskuizkribuak, inprimatutako liburuak, argazkiak, mapak ...) sarbidea ematen du.

Beharrezkoa da, bestalde, ahalegin hori esparru horretako nazioarteko ekimenekin lotuta egotea, eta, zehazkiago, Europeanarekin, hau da, kultura-ondare digitalizatuaren Europako atariarekin. Ildo horretatik, Europako Batzordeak, kultura-materialaren sareko digitalizazio eta irisgarritasunari eta kontserbazio digitalari buruzko 2011ko urriaren 27ko Gomendioan, estatu kideei eskatzen die Europeanara garatzen laguntzeko, eta kultura-erakundeei eta beste eskubide-titular batzuei eskatzen die haien material digitalizaturako sarbidea emateko Europeanaren bitartez, jabari ezberdinetako edukiak Europeanan sartu ahal izateko agregatzaile nazionalak sortuz eta indartuz. Horrez gain,

kultura-erakundeek ekoizitako metadatuaren eskuragarritasun zabal eta askea bermatu beharko dute estatu kideek, Europeanaren moduko zerbitzuen bidez berrerabili ahal izateko.

Jarduketa-ildo horretan, 2019an, Eusko Jaurlaritzak Adostasun Txostena sinatu zuen European Fundazioarekin, haren webgunean euskara erabiltzeko. Akordio hori luzatzeko aukera zegoen, betiere lankidetzaren arlo berriak identifikatzen baziren.

Horretarako, Euskarianak digitalizazioari, sarean kultura-materiala eskuratzeari eta sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzko Europako araudia aplikatu behar du. Zehazki, garrantzitsua da Batzordearen 2021eko azaroaren 10eko 2021/1970 Gomendioa (EB), kultura-ondararako datuen Europako espazio erkideari buruzkoa, agregatzaileen eta arlo horretan lan egiten duten adituen arteko interakzioa indartzeko. Espazio erkide hori Europeanaren egungo estrategian oinarritzen da, eta haren helburua da kultura-ondareaz arduratzen diren erakundeei eraldaketa digitalerako gaitasunak ematea. Horri esker, Europeanako agregatzaileek funtsezko rola izango dute, nazio eta Europa mailan; beraz, estatu kideei babesa indartzeko eskatzen zaie, kultura-ondararako datuen Europako espazio erkidearen alde egiteko.

Aurrekoa kontuan hartuta, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari eta bere organoei dagozkien funtzio eta eskumenetan oinarrituta, Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuan aurreikusitakoarekin bat, agindu honen bidez Europeanari metadatu eta miniaturak emateko prozedura finkatzen da.

Hori guztia kontuan izanik, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskarianako datu-bazkideek Europeanari metadatu eta miniaturak emateko prozedura onestea, agindu honen I. eranskinean eta bazkide horiek aldeztu aurretik egindako eskaeran aurreikusitakoarekin bat etorritik, klausula hauen arabera:

Lehenengoa.– Euskariana.

1.– Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Euskadiko Liburutegi Digitala zerbitzuaren bitartez, lankidetzaren mekanismoak ezartzen ditu erakunde publiko eta pribatuekin, euskal ondare digitala sortu, babestu eta hedatzeko eta sarbidea bermatzeko. Horretarako sortu du Euskariana ataria.

2.– Euskariana da euskal kulturaren atari digitala, eta haren helburua da sarbide unibertsala ematea euskal kultura-ondarearen ezagutzari, ahalik eta gehien hedatzeko.

3.– Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Euskadiko Liburutegi Digitala zerbitzuaren bitartez, zenbait funtzionalitate inplementatu ditu Euskarianan, euskal kultura-ondarearen baliabideen edukiak, datu-bazkideek emandakoak, eskualde-mailan eta gaiaren arabera gehitzeko. Horretarako, metadatu eta miniaturak biltzen ditu euskal kulturarekin lotutako gordailuetatik, European hornitzeko.

Bigarrena.– Euskarianako datu-bazkideek Europeanari metadatu eta miniaturak emateko prozedura.

1.– Euskarianaren datu-bazkideek erabaki ahal izango dute osorik edo partez eman nahi dizkionten Europeanari Euskarianan bildutako metadatu eta miniaturak.

2.– Euskarianaren datu-bazkideek metadatu eta miniaturak eman nahi badizkiote Europeanari, konpromisoa hartzen dute agindu honen I. eranskinean jasotako baldintzak betetzeko.

3.– Interesa duten Euskarianako datu-bazkideek aginduaren II. eranskina bete eta sinatu beharko dute, eta, ondoren, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari bidali, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedurari buruzko 39/2015 Legean aurreikusitako bitartekoen bidez.

1) Pertsona fisikoek aurrez aurre zein elektronikoki aurkez ditzakete eskabideak:

a) Aurrez aurre: eskabideak Kulturako sailburuordeari bidali beharko zaizkio, eta toki hauetan aurkeztu ahal izango dira: Zuzenean zerbitzuan, soilik aurretiazko hitzorduarekin <https://www.euskadi.eus/hitzordua-zuzenean> helbidean sartuta, edo aurretiazko hitzordua eskatu edo bertan behera uzteko telefono-zenbakiaren bidez: 945 01 90 00 edo EAEko erregistro osagarrietan, hau da, apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa) adierazitako edozein erregistrotan, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako tokietan, eskabide normalizatuaren bitartez, zeina osorik eta behar bezala bete beharko baita. Eskabidearen eredia Euskadiko Liburutegi Digitalaren zerbitzuaren webgunean egongo da eskuragarri.

b).Bide elektronikoa: bitarteko elektronikoak erabilita aurkeztuko dira eskabideak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan. Eskabidearen eredia Euskadiko Liburutegi Digitalaren zerbitzuaren webgunean egongo da eskuragarri.

2) Pertsona juridikoek bitarte elektronikoak erabiliz aurkeztu beharko dituzte eskabideak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan. Eskabidearen eredia Euskadiko Liburutegi Digitalaren zerbitzuaren webgunean egongo da eskuragarri

4.– Eskaeraren osteko izapideak bide elektronikoz egingo dira, «Nire karpeta» atalaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren helbide honetan: <https://euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bideak helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

6.– Pertsona edo erakunde eskatzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko zeinahi hizkuntza ofizialetan aurkeztu ahal izango dute eskabidea eta atxikitzen diren egiaztagiria. Era berean, eskabidetik eratorritako jarduketetan, eta prozedura guztian zehar, pertsona edo erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a eta 6.1 artikuluetan xedatutakoa betez.

7.– Eskabidea aztertu ondoren, Kulturako sailburuordearen ebazpenaren bidez ebatziko da, hilabeteko epean. Epe hori inolako ebazpenik eman gabe igaro bada, eskabidea onartu dela ulertuko da.

8.– Europeanari miniatura eta metadatuak emateko, agindu honen I. eranskinean jasotako termino eta baldintzak beteko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Eranskinak gauzatzeko eta aldatzeko jarraibideak.

Kultura Ondarearen zuzendariari baimena ematen zaio agindu honetan xedatutakoa betetzeko jarraibide zehatzak emateko, baita, hala badagokio, berau osatzen duten eranskinetako edukia aldatzeko ere.

2023ko urriaren 6a, ostirala

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Errekurtsoa.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek auke-rako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, agindua EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioa-
rekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindu hau aldizkari ofizial berean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 29a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

I. ERANSKINA

(Agindua, 2023ko irailaren 29koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baita Euskariana datu-bazkide gisa aitortzeko eta Europeanari metadatuak eta miniaturak emateko prozedura).

EUSKARIANAKO DATU-BAZKIDEEK HAUTATUTAKO METADATU ETA MINIATURAK EUROPEANAN SARTZEKO BALDINTZAK

1. artikulua.– Datu-baseen xedea eta edukia.

Europeana Europar Batasunaren biblioteka digital publikoa da.

Europeanaren helburua da Europako kultura- eta zientzia-ondararako sarbidea ematea. Helburu hori kontuan hartuta, Europeanak metadatu deskribatzaileak eta miniaturak sartu, indexatu, aberastu eta eskuragarri jartzen ditu, ondare hori osatzen duten objektu digitalekin lotuta. Horrela, Europeanak mesede egin nahi die bai objektu digital horien titularrei eta bai publiko orokorrari.

Horretarako, Europak metadatu eta miniaturen datu-base bat du.

Euskarianako datu-bazkideak edukiarekin lotutako metadatu eta miniaturak sor ditzake, baldin eta aproposak badira datu-base hori osatzeko.

Datu-bazkidea prest dago metadatu eta miniatura horien zati bat datu-base horri emateko, akordio honetan jasotako baldintzekin bat.

Arlo batzuetan (adibidez, museoen kasuan), zaila izan daiteke argi eta garbi bereiztea metadatuak eta edukiak, eta, ondorioz, Europeanari emandako datuei «metadatu» deituko zaie I. eranskin honen xedeetarako.

Europeanaren helburua da datu-baseko metadatu guztiak eskuragarri egotea, datu-bazkide guztiek eta publiko orokorrak berrerabil ditzaten.

2. artikulua.– Definizioak.

1.– CC0 1.0 jabari publiko unibertsalaren eskaintza: Creative Commons-en jabari publiko unibertsalaren lagapena, webgune honetan argitaratuta: <http://creativecommons.org/publicdomain/zero/1.0/>.

2.– Edukia: Europako kultura- eta/edo zientzia-ondarea osatzen duen objektu fisiko edo digital oro; oro har, datu-bazkidearen edo datu-hornitzaile baten esku egoten da.

3.– Objektu digitala: Europako kultura- eta/edo zientzia-ondarea osatzen duen objektu baten irudikapen digitala. Objektu digitala ere jatorrizko objektua izan daiteke, formatu digitalean sortzen bada.

4.– Europeana.eu: Europeanaren webgunea, eta haren datuak eta makina-interfazeak; ez da nahitaezkoa dibulgazioa europeana.eu URL helbidearen bitartez egitea.

5.– euskariana.euskadi.eus: Euskarianaren webgunea, eta haren datuak eta makina-interfazeak; ez da nahitaezkoa dibulgazioa euskariana.euskadi.eus URL helbidearen bitartez egitea.

6.– Jabetza intelektualaren eskubideak: besteak beste, barne hartzen ditu egile-eskubideak, antzeko edo lotutako eskubideak eta datu-baseen gaineko eskubideak.

7.– Metadatuak: edukia identifikatu, aurkitu, interpretatu eta/edo administratzeko balio duen testu-informazioa (hiperestekak barne).

8.– Medatuen espezifikazioak: metadatuaren espezifikazioen bertsio berriena, Europeanak argitaratuta eta hemen eskuragarri jarrita: <http://europeana.eu/schemas/>

9.– Miniaturak: edukiaren ikusizko irudikapena, irudi gisa.

10.– Hirugarrena: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Euskarianako datu-bazkide gisa aitortzeko eskatzen duen pertsonaren arteko harremanetik at dagoen pertsona fisiko edo juridiko oro.

11.– Jabari publikoa: jabetza intelektualaren eskubideek babesten ez dituzten eta/edo jabetza intelektualaren eskubideei uko egitearen mende dauden eduki, metadatu edo objektuak.

12.– URI: baliabide-identifikatzaile uniformeak; URLak (baliabide-lokalizatzaile uniformeak) URLak dira.

13.– Euskarianako datu-bazkidea: euskal kultura-ondarea osatzen duten baliabide digitalizatu edo digitalak kudeatzen dituzten pertsona eta erakundeak (publikoak edo pribatuak).

3. artikulua.– Metadatu eta miniaturak eskuragarri jartzea.

1.– Artikulu honetako 2. eta 3. apartatuetan jasotako gutxieneko baldintzei kalterik egin gabe, Euskarianako datu-bazkideari dagokio erabakitzea zein metadatu eta miniatura emango dizkion Europeanari, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Euskadiko Liburutegi Digitalaren zerbitzuaren bitartez; horrek barne hartzen du soilik haren edo datu-bazkideen esku dagoen edukiaren zati bati dagozkion metadatu eta miniaturak bidaltzeko eskubidea. Horrez gain, eduki jakin batekin lotuta, soilik haren edo datu-bazkideen esku dauden metadatu eta miniaturen zati bat bidal dezake.

2.– Euskarianako datu-bazkideak metadatu eta miniaturak bidaliko ditu, Europeanak argitaratutako metadatuak buruzko espezifikazioen azken bertsioarekin bat.

3.– Euskarianako datu-bazkideak arduraz emango dizkio Europeanari edukien gaineko jabetza intelektualaren eskubideei buruzko metadatu zuzenak, eta, hala badagokio, edukia jabari publikoko eduki gisa identifikatuko du.

4.– Europeanak ziurtatuko du metadatuaren espezifikazioen etorkizuneko bertsioak bateragarriak izango direla indarrean sartzeko datan aplikatu beharreko metadatuaren espezifikazioekin.

5.– Euskadiko Liburutegi Digitalaren zerbitzua lankidetzan arituko da Euskarianako datu-bazkidearekin, hark emandako metadatuak zuzendu, eguneratu eta ezabatzeko lanetan.

4. artikulua.– Metadatuaren erabilera.

1.– Artikuluaren 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitakoa betetzeko baldintzapean, Europeanak, Euskadiko Liburutegi Digitalaren zerbitzuaren bitartez, Euskarianako datu-bazkideak emandako metadatuak sartuko ditu bere datu-baseetan, eta metadatu horiek argitaratuko ditu horien zati gisa.

2.– Europeanak metadatu guztiak argitaratuko ditu CC0 1.0 jabari publiko unibertsalaren adierazpenaren baldintzekin bat, eta, honen bidez, Euskarianako datu-bazkideak horretarako baimena ematen du. Euskarianako datu-bazkideak, honen bidez, lege aplikagarriek uzten duten neurrian, baina horiek urratu gabe, uko egiten die Europeanari eman eta emango dizkion metadatuaren gaineko jabetza intelektualaren eskubide guztiei. Lege aplikagarriekin bat uko-egite horiek ez badira lotesleak lurralde jakin batzuetan, *Public License Fallback* delakoa (lizentzia publiko alternatiboa) aplikatuko da, CC0 1.0 *Universal Public Domain Dedication* lizentziaren 3. atalean jasotzen den moduan, eta Euskarianako datu-bazkideak emandako metadatuak publikoaren esku jarriko dira modu ez eskusiboan, baldintzarik gabe eta doan, erabilera eta lurralde guztietarako.

3.– Euskarianako datu-bazkideak hirugarrenen bitartez bildu edo jasotako metadatuak eman edo ematen badizkio Europeanari, Euskarianako datu-bazkideak hirugarren horien baimena lortu beharko du, Europeanak baimendu ahal izateko, artikulu honen 2. apartatuarekin bat.

4.– Europeanak Euskarianako datu-bazkideari egotz dakizkiokeen metadatuak argitaratzen baditu (osotik edo zati bat), nahitaez egotzi beharko dizkio bai datu-bazkideari, bai eta hark metadatu eta miniaturrei buruzko espezifikazioen edm:dataProvider eremuan (edo bertsio berrienerako baliokidean) aipatzen dituen alderdiei ere.

5.– Europeanak, Euskarianako datu-bazkideak emandako metadatuaren oinarritutako itzulpen edo transkripzio bat argitaratzen badu, halakotzat identifikatu beharko du itzulpen edo transkripzio hori.

5. artikulua.– Miniaturen erabilera.

1.– Artikuluaren 2. eta 3. paragrafoak gorabehera, Europeanak eskubidea du baimena emateko Europeana.eu webguneko bisitariei eta hirugarrenei miniaturak erabiltzeko, Euskarianako datu-bazkideak metadatuaren espezifikazioen edm:rights eremuan (edo bertsio berri bateko balioak) zehaztutako baldintzekin bat.

2.– Europeanak eskubidea du Euskarianako datu-bazkideak emandako miniatura guztiak biltegitatu eta argitaratzeko, baina soilik edukiari dagozkion metadatuarekin batera.

3.– Datu-bazkidea denez Europeanari ematen dizkion miniaturen gaineko jabetza intelektualaren eskubideen jabea, datu-bazkideak, honen bidez, lizentzia bat ematen dio Europeanari eskubide horiek erabiltzeko artikuluekin bat, hargatik eragotzi gabe datu-bazkideak miniatura horien gainean izan ditzakeen eskubide moralak.

4.– Euskarianako datu-bazkideak hirugarrenen bitartez bildu edo jasotako miniaturak eman edo ematen badizkio Europeanari, Euskarianako datu-bazkideak hirugarren horien baimena lortu beharko du, Europeanak artikulua honen 1. eta 2. apartatuak aplikatu ahal izateko.

6. artikulua.– Objektu digitalen erabilera.

1.– Europeanari emandako metadatuak objektu digital lotuetarako esteka zuzenak badituzte, Europeanak aukera emango die Europeanako bisitariei objektu digital horiek ikusteko, Europeana.eu webgunetik atera gabe.

2.– Artikulu honen 3. paragrafoan deskribatutako egoeretan izan ezik, Europeanak ez du biltegitatuko objektu digitalen kopiarik.

3.– Europeanak eskubidea du Euskarianako datu-bazkideak emandako metadatuarekin aipatutako objektu digitalak erabiltzeko, objektu digitalekin lotutako metadatuarekin jasotako eskubide-adierazpenean finkatutako baldintzekin bat.

7. artikulua.– Erantzukizuna eta zuzenketak.

1.– Euskarianako datu-bazkideak ahal duen guztia egin beharko du bermatzeko Europeanak 4. eta 5. artikulua betetzen dituela eta ez dagoela hirugarrenen aurkako legez kontrako ekintzarik, honako hauek barne (besteak beste):

- a) hirugarren baten jabetza intelektualaren eskubideak urratzea,
- b) pertsonalitate, pribatutasun edo publizitate eratorritako eskubideak edo beste batzuk urratzea, edo
- c) ordena edo moral publikoa urratzea (gorrotoa elikatzea, lizunkeria, etab.)

2.– Europeanak hirugarren baten aurkako legez kontrako ekintzarik egiten badu 4. eta 5. artikulua betetzean, Euskadiko Liburutegi Digitalaren zerbitzuaren bitartez, Euskarianako datu-bazkideari lagundu beharko dio legez kontrako ekintzaren ondorio negatiboak mugatzen, erantzukizun onartu gabe. Betebehar hori betetzeko, Europeanak artikulua honen 3. apartatuan deskribatutako jakinarazpen- eta ezabatze-prozedura erabiliko du.

3.– Euskarianako datu-bazkide batek edo hirugarren batek jakinarazten badiote Europeanari 3. eta 4. artikulua betetzeko orduan legez kontrako ekintzaren bat gertatu dela edozein alderen aurka, Europeanak, 5. laneguneko epean, erabaki beharko du jakinarazpena (a) funsgabetzat, (b) onargarritzat (erreserbarik gabe) edo (c) eztabaidagarritzat jotzen duen. Halaber, Europeanak honako hau egingo du:

a) Europeanak irizten badio jakinarazpena funsgabea dela, alde jakinarazleari horren berri emango dio Euskadiko Liburutegi Digitalaren zerbitzuaren bitartez.

b) Europeanak irizten badio jakinarazpena onargarria dela, erreserbarik gabe, legez kontrako egoerari amaiera emateko beharrezko neurri guztiak hartuko ditu. Europeanak, Euskadiko Liburutegi Digitalaren

zerbitzuaren bitartez, erabakiaren berri emango die bai alde jakinarazleari eta bai Euskarianako datu-bazkideari.

c) Europeanak irizten badio jakinarazpena eztabaidagarria dela, Euskadiko Liburutegi Digitalaren zerbitzuaren bitartez erabakiaren berri emango dio alde jakinarazleari, eta aukera emango dio Euskarianako datu-bazkideari haren iritzia adierazteko, 10 laneguneko epean, Europeanak iritzia Euskarianako datu-bazkideari bidaltzen dion egunetik aurrera, Euskadiko Liburutegi Digitalaren zerbitzuaren bitartez. Euskarianako datu-bazkidearen iritzia jaso ondoren, Europeanak, Euskadiko Liburutegi Digitalaren zerbitzuaren bitartez, ikuspuntu berriak eskatu ahal izango dizkie alde jakinarazleari eta ondoren Euskarianako datu-bazkideari.

4.– Aldeek ez diote kalterik egingo elkarri, eta salbuetsita geldituko dira hirugarrenen ekintza, errekurtsio edo demandetatik.

5.– Euskadiko Liburutegi Digitalaren zerbitzuak ez du bermatzen ondoren Europeanari emandako baliabideen erabiltzaileek egindako erabilerarik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ere ez du erantzukizunik hartuko bere gain horri dagokionez.

8. artikulua.– Uko egitea.

1.– Euskarianako datu-bazkideak uko egin ahal izango dio, edozein unetan, Europeanari metadatu eta miniatura berriak emateari; horrez gain, eskatu ahal izango du alde aurretik emandakoak kentzeko. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali beharko dio Euskadiko Liburutegi Digitalaren zerbitzuari, eta azken horrek, halaber, Europeanari helaraziko dio. Uko egiteko arrazoiak izan daitezke, besteak beste, kaudimenik eza, porrota edo proiektuaren amaiera.

2.– Kentzeko eskaera indarrean sartuko da eskabidea jaso eta 60 eguneko epean.

9. artikulua.– Lagapena.

Uneren batean Europeana Fundazioak egindako jarduerak beste eragile batek egiten baditu, Euskarianako datu-bazkideak berriazko eta baldintzarik gabeko baimena ematen dio Europeana Fundazioari eragile berriari laga diezazkion eskubide eta betebeharrak guztiak.

II. ERANSKINA

(Agindua, 2023ko irailaren 29koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita Euskarianako datu-bazkideen metadatu eta miniaturak Europeanari emateko prozesua).

**EUSKARIANAKO DATU-BAZKIDEEN METADATU ETA
MINIATURAK EUROPEANARI EMATEKO ESKABIDEA**

EUSKARIANA euskal kultura-ondarean sartzeko atari digitala eta Europeanaren agregatzailea da. Haren helburua da euskal kultura- eta zientzia-ondarerako sarbidea ematea, eta, horretarako, ondare hori osatzen duten objektu digitalen metadatu deskribatzaileak bildu, indexatu, aberastu eta eskuragarri jartzen ditu. Horrez gain, objektu digitaletarako sarbidea ematen du esteken bidez, metadatuak ematen dituzten erakundeen webguneetan sartzeko. Horrela, EUSKARIANAK mesede egin nahi die bai objektu digital horien titularrei bai publiko orokorrari.

1.– Euskarianako datu-bazkidearen izena/sozietate-izena

<i>Pertsona edo erakundearen izena</i>	
<i>Menpeko unitatea</i>	
<i>Gordailu, webgune edo dena delakoaren izena</i>	
<i>Webgunearen URL</i>	
<i>OAI gordailuaren URL</i>	

2.– Euskarianako datu-bazkidearen harremanetarako datuak

<i>Proiektuaren arduradunaren izena</i>			
<i>Erakundeko funtzioa</i>			
<i>NAN/IFZ</i>		<i>Helbidea</i>	
<i>Hiria</i>		<i>Lurralde historikoa</i>	
<i>Autonomia-erkidegoa/herrialdea</i>		<i>Posta-kodea</i>	
<i>Harremanetarako pertsonaren izena</i>			
<i>Telefono-zenbakia</i>		<i>Helbide elektronikoa</i>	

NOREN IZENEAN DIHARDU? (dagokion laukitxoak markatu):

- Bere izenean eta baliabide digital/digitalizatuen titular gisa.
- Baliabide digital/digitalizatuen titularraren ordezkari gisa (ordezkatzeko ahalordea erantsi).

ESKATZEN DUT, datu-bazkide gisa, Europeanan sartzeko Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2023ko irailaren 29ko Aginduaren I. eranskinean jasotako termino eta baldintzetan une bakoitzean zehaztutako metadatu eta miniaturak (agindu horren bidez arautzen da Euskarianako datu-bazkideen metadatu eta miniaturak Europeanari emateko prozesua).

2023ko urriaren 6a, ostirala

□ AGINDU HONEN I. ERANSKINEAN JASOTAKO BALDINTZAK IRAKURRI ETA ONARTZEN DITUT. AGINDUA 2023KO IRAILAREN 29KOA, KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUJARENA, ZEINAREN BIDEZ EZARTZEN BAITA EUSKARIANARAKO DATU-BAZKIDEEEN METADATU ETA MINIATURAK EUROPEANARI EMATEKO PROZESUA

Vitoria-Gasteiz,koren(a).

Pertsona/erakunde eskatzailearen sinadura

Datuen egiazkotasuna

Pertsona edo erakunde eskatzaileak bere gain hartuko du emandako datuen egiazkotasunaren gaineko erantzukizuna.

Eskabidean ageri diren datu pertsonalak tratatu egingo dira eta izen hau duen tratamendu-jardueran sartuko dira: «Euskariana Webgunearen Kudeaketa»

- **Arduraduna:** Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.
- **Helburua:** erakunde edo pertsona fisiko titularrek emandako baliabide digitalak Euskarianan sartzeko eskaera kudeatzea.
- **Legitimazioa:** tratamendua beharrezkoa da interes publikoko eginkizun bat betetzeko.
- **Datuen Komunikazioa:** ez da datuen komunikaziorik ikusten.
- **Eskubideak:** eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.
- **Informazio gehigarria:** gure web orrian kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/135200-cap2-eu.shtml>

Araudia:

- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra.
- Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko.
- <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/informazioa/datuak-babesteko-erregelamendu-orokorrak/>

□ **Baimena ematen dut nire komunikazio- eta abisu-datuak oro har baliatzeko Eusko Jaurlaritzaren sailekin eta erakundeekin ditudan harremanetan.**